

Hautsak Harturiko Bertso Berriak

dazlantxo honen osagarri doan argazkiak eman digu bide hautsak eta bertsoak hizpide hartze-ko. Erretratu hori iazko urriaren 10ean atera genuen, etxea erauzi baino egun gutxi lehenago. Udaletxeak eremu berriak irabaz zitzan, etxe zahar honi betiko agur egin beharra zegoen. Betiko galdu aurretik, ordea, han ibili ginен gu bazter-miatzen familiaren ondarean. Eta familiarena ez ezik herriaren zenbait ondare ere topatu genuelako-an, bertan argitara emango ditugu ustez argitaragabeak diren garai bateko bertso berriak.

Hala bada, Antonio Zavalak bere Errenteria'ko bertsolari zaarrak liburuan jaso ez zituen 3 bertso-sorta plazaratuko ditugu. Zehaztasunetan hasirik, esan dezagun lehenengoan Jose Maria Elizegi Berasarte, Fraileren, sortako puxka zenbait bagenuela Jose Goñiren ahotik Zavalak papereraturik, eta oroimenak ez ziola akats handirik eragin orain geratuko dela begien bistan. Bigarrenari dagokionez, C. Elizegiren baitakoak Cipriano zinegotzi izanari dagozkiola iruditzen zaigu. Eta, azkenik, J.R.T.k jarriak Jose Ramon Taberna, Ttabernari, uztartu beharko zaizkio. Fraileta-rren zein Ttabernaren berri gehixeago nahi lukeenak aipaturiko liburu-ja jo besterik ez luke.

Amaitzeko esango dugu bertsoen jatorrizko moldea errespetatzea hobetsi dugula eta bere horretan emango ditugula: grafia ukitu gabe eta tarteka akasño batzuk dituztela.



BERSO BERRIAC

Errenterioe Fraileco jarriae

1

Misiyuar icasiya
Naiz esplicatzeko asiya
Esan diguten guciya
Bat belsepeñ ez da
Aspertu eta jechiya
Ay Jaungoico biciya
Amac guretzat utziya
Eman oyeri graciya.

2

Ez bada inocenciya
Bear da penitenciya
Artu guztia etziya
Doai eder bat
Bazan Jesusec
Testamentuan utziya
Bota du cembait graciya
Guero cerutic jechiya
Maite du mundu guciya.

3

Missiyo amorosuac
Aingueruen gurasuac
Pecatu asco jasua
Gurutze Santua
Artu laztanca
Zabaltzen dituote besuac
Chit dira curiosuac
Ain dira animosuac
Jesu-Cristoren usuac.

4

Esamiña egun lenbici
Concienciya icusi
Pecatu danac beressi
Bere anima infernuetan
Norc naico luque icusi
Etzayac naidu eros
Eguin zayogun iguesi
Ez du galtzeric mereci.

5

Eguin badegu oquerrie
Confesatzea bacarric
Ibilli gabe alferric
Motiboac baguenduen da
Aditzen degu ederric
Eguin pisca bat bederic
Gorputzac badu indarric
Etorri gabe negarric.

6

Etzay gaitzoen leicia
Zabala eta lucia
Oquerreneco clasia
Cer balio du gorputz batian
Anima batayatzia
Guero daucagun lancia
Pena cmaindu galtzia
Oyen escura jartzia.

7

Au cristandade nastua
Obra onetaco oztua
Pecatuz aberastua
Religiyoai garraztusuna
Lujuriari gustua
Cer da ichumen gaistua
Guztiyen Juez justua
Ez da egongo aztua.

8

Erderaz maldiciyca
Judasen oraciyua
Au euscaldunen leciyua
Blaesfemiasquin ayenatzent du
Jesusen bendiciyua
Triste dago Missiyua
Utzitzezo biciyua
Nai bada salbaciyua.

9

Abe Maria bat erdiyan
Beraren sortze garbiyan
Iñor badago premiyan
Guztiyen Ama aldaretican
Or daducagu guardiyan
Tristura dauka beguiyan
Orain naiz bada abiyan
Cerbait consola dediyan.

10

Jaunaren misericordiya
Oso da gauza aundiya
Caso bat miragarrisia
Descuido batez bete ez dedin
Pecatarien neurriya
Aingueru bat dia guardiya
Bada cerbaiten premiya
Bildur liteque arriya.

11

Eguiten duenac pecatu
Eguin becela aitorru
Zorra nai badu pagatu
Contriciozko acto eder bat
Amparo ordeztat artu
Ez Jesus desanparatu
Biotzetikan maitatu
Nai badegu salbutu.

12

Emen ondo ajustatu
Eguizay manifestatu
Formalidadez prestatu
Ai pecatari miserablia
Ez zaitecela jostatu
Biotzetikan escatu
Ez du seculan ucatu
Ez arren ortan dudatu.

13

Comparaciyo au banuan
Lau urte pasa munduan
Tribunalera jo nuan
Nere biotzeco Jesus maitia
Ez daquit cebat zor duan
Ez banaiz sartzen ceruan
Oroituco naiz orduan
Cer egun dedan munduan.

14

Casino eta tabernac
Teatroetan daudenac
Ordiquerian gueyenac
Erari gauzex manchaturican
Campoa etx barrenac
Utziric bada char danac
Jesucristoren ordenac
Cumpli ditzaque chur denac.

15

Jesus maitia neria
Ceru ta lurren jibia
Zuregan daucat fedia
Gure ongi nayezi bere Biotza
Elizan daucha paria
Ez daqnit denac badia
Orra nic esan ordia
Anima dedin jendia.

16

Erregue ta erreguiñiac
Emperadore jardifiac
General Capitan fiñiac,
Jaungoicoari igual costa ta
Guztiac guera equiñiac
Batayoz ere berdiñiac
Santo eta Ama Birjiñiac
Eguin gutaz aleguiñiac.

17

Itzeguin badet gueyegui
Barcatu bada gaur neri
Esaten diyet denari
Cerbait itzeguin arren nic ez
Idiot
Gorrotorican iñori
Bonifacio Baraibarri
Eta Bicario Jaunari
Ez juaten utzi oyeri.

18

Goardatu mandamentuac
Confesatu pecatuac
Maiz artu Sacramentuac
Argatic didar eguiten zute
Aingueru eta Santuac
Jesusen odol tantuac
Gurutzetikan urtuac
Ematen dituzten frutuac.

19

Seigarren m mandamentua
Gabeo juntamentua
Nola dagon ondatua
Jesus argatic hilvan
Artuko digu contua
San Agustin é santua
Guchitic escapatuac
Ceruraco escogitura.

20

Bicigaiteen dolorez
Certan gabiltza aldrevies
Badirudigu Herodes
Jesus maitiari llagac verritzen
Amparoric iñor ez
Ziquintzen degu odolez
Desmayatua colorez
Aitor dezagun favorez.

21

Jayo guifianac mundura
Biltzeco alcarren ondora
Laister dembora eldu da
Gurasuaren eriantzan faltan
Cembait anima galdu da
Erregu ordutic ordura
Missiyu oyen modura
Igo gaitetzen cerura.

BIZI BEDI EUSKERA

¡Ay! nere ama maitia!

I

Lur maite ontan ni jayotzeko
jaunaren borondatia
izanduzan ta emenchen nabil
penaz ondocho betia
Seine gaiztoak alchatu dira
(esanaz); errematia
beardubela gure iskuntzak
¡Ay! nere ama maitia.

II

Or Unamuno eta Altuna
biyak lagunak baitia,
oyek naidute Euskera ill da
erdera erakustia;
ori litzake seme onaren
biotza lutoz justia,
orrengatikan ezaten det nik
¡Ay! nere ama maitia.

III

Kartzelan dauden gizon gaiztoak
giltzas ichita atiak,
eta anketan ongi loturik
grillubak edo katiak,
egotendira beti pentzatzen
egindituzten kaltiak,
(esanaz); baldin jakingo balu
¡Ay! nere ama maitia.

IV

Orrela berdin arkitutzenda
oyian dagon tristia,
izanagatik aberatz, pobre,
edo zarra ta gaztia;
askidu gure Jangoiko onak
oñasebat ematia,
berialashen gogoratzeco
¡Ay! bere ama maitia.

V

Esaguturik ama bat zerdan
bere aurchoarentzako;
¿Nola chinistu bere seineak
ez andutela illenze?
¿Negarrez iya urturik dago,
(esanaz) danok biltze,
ta Unamuno eta Altuna
emendik bialdutze?

VI

Ikusirikan ama maitia
triste eta penaturik,
ara anayak bere onian
zer pentsatu dedan gaurnik;
ezdegula nai aldamenian
erdera maite dubanik,
aín guchi berriz Euskal-Errriyan
Unamuno ta Altunik.

VII

Euskeratarrak maita dezagun
gure iskuntza garbiya
ori da gure bandera eta
ama gashuen biziya
oyek eginda ematen badu
gure Jainkuak graziya
gauden lekutik alchako degu
guk Euskal-Errri greciya.

C. Elizegi

Imp. y lit. de V. Iraola.

BERSO BERRIAK

J. R. T.^K jarriak

—1—

Gure aurreko guraso zarrak
Bizi balira munduban
Esan ez dakit egungo luteken
Baña bai pasa goguan
Euskaldunaren jatorri-zarra
Zer estadutan dagoan
Oraïñ mendian daukate baño
Nagusi utzi guenduan.

—2—

Ezagutuba daukatenian
Gure geniyo humilla
Esaten dute legue zarreko
Bandera jarri dedilla
Provintzi eder pare-gabia
Ikusi danian illa
Euskal-erriko buru zariyak
Oraïñ juan dirade billa.

—3—

Oraindik ere Euskaldunetan
Guizon zuzenak badaude
Pechau jarri zanetik onera
Pasiak zenbait dolore
Zezen gashtua mañaz bezela
Artu ditzagun dotore
Guk nai badegu egungo guera
Lengo fuerdoaren jabe.

—4—

Lengo lekuan nai baditugu
Ikusi gueren furooak
Religioa defenditzeko
Izan gaitezen beruak
Euskal-erriko lagun maiteak
Ona sefiale claruak
Fede Santua nola aumentatu
(Guizatzen gaitu Credoak,

—5—

Frutu eder bat atera dezan
Ereñi degun aziyak

Lendabiziko eskatu dizkat
Jaungoicoari graziyak
Fueroak kendu zituste netik
Guelditu guiñan etziyak
Gugandik ori ez du merezi
Euskaldunen provintziyak.

—6—

Burutik iya jauziya nabill
Ontaz pentsatzen nagola
Okerra bishtan ikusten eta
Eziñ zuzendu ilola
Etsai gaishtuak chupatu gabe
Catolikuen odola
Defenditzera saya gaitezen
Religioko arbola.

—7—

Arguitasun bat topatu dezan
Daukagun federatu lauzubak
Danak batera eguiñ dezagun
Gende Religiosuak
Contzideratu gure Jesus-en
Bost llaga preziosuak
Gurutzean gugatik ill zala
Josirik oñi eta eskuak.

—8—

Jesucristoren dotriñia ederrak
Esaten digu au bera
Gaur gauden bañan zuzenaguak
Izan gaitezen aurrera
Euskaldun danak alkar artuta
Osatzentz baldiñ baguera
Lengo lekuan jarriko degu
Legue zarreko bandera.

—9—

Ejemplo onbat emenchen dago
Nai baguenduke ikasi
Mingañ charreko etsai gaistua
Nola bigaldu iguesi
Euskaldun danak biotzetikan
Etska zayogun Jesusi

gure Aitonak zuten legua
Jarri dedillan nagusi.

—10—

Atzerritarak jarri zaizkigu
Gure ur onak gozatzen
Euskaldun danak alkarren alde
Ez gueralako osatzen
Memoriala sartuko nuke
Ez balitz ezer kostatzen
Grano bati-ere ez lajatzeko
Ebroz-onera pazatzen.

—11—

Ogueita bedetzi urte juan dira
Legue berriyen ofetan
Onen azpian dagona ori
Jarri biar degu gañetan
Euskal-erriko seme guztiyak
Asten baguera ziñetan
Gure Arbola Guernikakoa
Indartuko da ziñetan.

—12—

Cantak jartzera obligatu naiz
Kasu-au dala mediyo
Oraïñ fabore mintzatzen dira
Len zigutenak odiyo
Ni naiz euskaldun eguiyazkoa
Jakintzun batek au diyo
Gure Arbola gayenduko da
Non-naitik puja dariyo.

—13—

Gure Arbola Santuagatik
Bertsuak ditut jarriyak
Onra aundi bat izan dezaten
Onekiñ Euskal-erriyak
¡Biba feroak! eguiñ zituzten
Oju ikara-garriak
Itzak kumplitzan ez badituzte
Aterakoitut berriyak.

FIN